



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 27a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure erkidegoko langile autonomoen sektoreak proposatutako neurriak jaso ditzan aurrekontuen aurreproiektuan. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/DEC-00040. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Farmazialariaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00385. Galdera, jakiteko zer itxaron-zerrendatara bideratzen diren interkontsulta ez presentzialak. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (5. or.).
- 11-24/PES-00386. Galdera, Estanca de los Dos Reinos hezegunearen kudeaketa planari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00387. Galdera, bi garraio-arnasgailu erosteari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00388. Galdera, Nafarroako administrazio publikoan datuak sexuaren arabera bereizirik eta genero-analisisa eginez jaso, analizatu eta eskuragarri jartzeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00389. Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan integrala berrikusteari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00390. Galdera, Iruñeko, Tuterako eta Altsasuko ohiko aterpetxeen ordezkotzari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00391. Galdera, A-15 autobioako lehenbiziko tartearen proiektua gaurkotzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00392. Galdera, A-15 autobioaren lehenbiziko tartearen obra lizitatu, esleitu eta bukatzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (9. or.).

- 11-24/PES-00393. Galdera, A-15 autobiarene bigarren tartearen proiektuaren gaurkotzea esleitzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00394. Galdera, A-15 autobiarene bigarren tartearen obra lizitatu, esleitu eta bukatzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00395. Galdera, A-15 autobiarene lotunerako hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00396. Galdera, Zibersegurtasunaren Nafarroako Agentzia sortzeko foru-lege proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00397. Galdera, erresilientzia autonomikorako funtsari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00398. Galdera, Adimen Artifizialak gure ekonomian duen garapenaren inpaktuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gure erkidegoko langile autonomoen sektoreak proposatuta-ko neurriak jaso ditzan aurrekontuen aurreproiektuan

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gure erkidegoko langile autonomoen sektoreak proposatutako neurriak jaso ditzan aurrekontuen aurreproiektuan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, urriaren 3ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Alderdi Popularrak mozio bat aurkeztu zuen iragan maiatzaren 2an, gure erkidegoko langile autonomoen egoera hobetzeko eta sektorerako neurri eraginkorren bidez afiliazio-datuak hobetzen saiatzeko.

Sektorearen beharrezanez aritze aldera Nafarroako Enpresa Konfederazioaren Lan Autonomoaren Batzordearekin bilera bat izan ondoren uste dugu erreibindikazio horiek ez direla gauzatu, eta

gure ustez funtsezkoa da Nafarroako Gobernuak behar adinako zuzkidura jasotzea 2025eko aurrekontuetan, sektorea eskatzen ari den neurriak garatu ahal izateko.

Gure erkidegoarentzat garrantzi handi-handikoa da langile horiek babestea; izan ere, gure lurralde honetan instalatuta dauden enpresarik gehien-gehienak autonomoenak edo enpresa txikiak dira, gehienez ere bi langile dituztenak. Nafarroan ezarritako enpresen % 80 dira horiek, eta, hortaz, gure eragile ekonomikoetako bat.

Gaur egun, 46.494 langile autonomo dauzkagu, balioan jarri behar ditugunak, baita administrazio publikoetatik ere, eta babestu egin behar dugu etengabe aldatzen ari diren sektoreetan egunero euren negozioak irekitzeko, beren burua berriz asmatzeko eta sendotzeko egiten duten ahalegina.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. 2025eko aurrekontuen aurreproiektuan jaso ditzan sektoreak proposatutako neurriak eta zenbatekoak.

1.1. Enplegu autonomoa sustatzeko diru-laguntzak: 4.210.440 euro.

1.2. Zero kuota sustatzea autonomo berriendako: 1.500.000 euro.

1.3. Kontratazioa eta hazkundera sustatzea: 2.500.000 euro.

1.4. Belaunaldien errelebo bultzatzea: 134.000 euro.

1.5. Emakumeen lan autonomoa sustatzea, kontziliazioari lagunduz: 100.000 euro.

1.6. Autonomoendako erabilgarri dauden baliabideen, aukeren eta babesen komunikazioa eta hedapena hobetzeko estrategiak sortzea: 134.360 euro.

1.7. Autonomoen lanean segurtasuna eta osasuna bilatzen duten proiektuetarako eta baliabide-
etarako partida: 100.000 euro.

2. Autonomoek pairatzen duten presio fiskala
murrizteko neurriak ezartzea.

3. Lehiatila bakarra sortzea, administrazio-iza-
pideak sinplifikatzeko eta burokrazia murrizteko.

Iruñean, 2024ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/DEC-00040. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Farmazialariaren Mundu Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak,
2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, honako
adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du
Farmazialariaren Mundu Egunaren ospakizunare-
kin, eta aitortzen du Foru Komunitatean jarduten
duten farmazialari guztiek lan garrantzitsua egiten
dutela gure osasuna zaintzen, medikamentuaren
eta osasun publikoaren inguruko jarduera-eremu
askotatik.

2. Nafarroako Parlamentuak balioa ematen dio
gure erkidegoan diharduten farmazialarien zeregi-
nari, funtsezko lanbidea izateaz gain, gure osa-
sun-sistema indartzeko gakoa baita.

3. Nafarroako Parlamentuak eskertu eta aitortu
egiten du farmazialari guztiek Nafarroako gizarte-
ari eskainitako lana eta ardura, eta haien presta-
suna administrazio publikoekin, beste entitate ba-
tzuekin eta herritarrekin lankidetzan aritzeko, are
hertsiki osasungintza denaz bestelako eremu ba-
tzuetako lankidetzan ere.

4. Nafarroako Parlamentuak bere egoitzako fa-
txada kolore berdez argizatzea erabaki du, lurral-
de honetan lan egiten duten farmazialari guztien
omenez".

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00385. Galdera, jakiteko zer itxaron-zerrendatara bideratzen diren interkontsulta ez presentzialak

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, jakiteko zer itxaron-zerrendatara bideratzen diren interkontsulta ez presentzialak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00344 galderari emandako erantzunean esaten da interkontsulta ez-presentzial baten ondoren dagoen aukeretako bat dela pazientea "itxaron-zerrendan sartzea zerbitzuak hitzordu presentziala" eman diezaion. Kasu horretan, paziente-mota hori zer itxaron-zerrendatan sartzen da (lehenbiziko kontsulta edo hurrengoak) eta noiztik (hilabetea eta urtea)?

Iruñean, 2024ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00386. Galdera, Estanca de los Dos Reinos hezegunearen kudeaketa planari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Estanca de los Dos Reinos hezegunearen kudeaketa planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

"Estanca de los Dos Reinos" KBE/HBBEK Nafarroako aniztasun biologikoaren erakusgarri diren habitat naturalak, flora eta fauna basatia hartzen ditu. Nafarroako Gobernuak erabaki du Batasuneko Intereseko Lekueterako kudeaketa-planak egitea dela kontserbazio-neurri aktiboak egituratzeko modurik onena, eta horregatik galdetzen dugu ea zer neurri hartu den Estanca-ren kudeaketa-planaren arabera eta zer eboluzio izan den hektareatan, hezegunea ez dadin kanabera eta ihi lohiz bete.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00387. Galdera, bi garraio-arnasgailu erosteari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, bi garraio-arnasgailu erosteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00235 galderari emandako erantzunean esaten da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 150 arnasgailu dauzkala biltegiturata, COVID-19aren pandemian erositako haletatik; horien artean, garraio-arnasgailuak daude.

Zerk justifikatzen du Estellerriko eta Tuterako osasun barrutietako anbulantzietarako bi garraio-arnasgailu erosi izana aurten (OB110/2024), 54.000 euroan, biltegituratutako arnasgailuak erabili beharrean?

Iruñean, 2024ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00388. Galdera, Nafarroako administrazio publikoan datuak sexuaren arabera bereizirik eta genero-analisia eginez jaso, analizatu eta eskuragarri jartzeari buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Nafarroako administrazio publikoan datuak sexuaren arabera bereizirik eta genero-analisia eginez jaso, analizatu eta eskuragarri jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Bermatzen ari al da Nafarroako Administrazio Publikoko departamentu guztietan datuak sexuaren arabera bereizirik eta genero-analisia eginez jasotzen eta analizatzen ari direla eta informazio hori eskuragarri dagoela?

Iruñean, 2024ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-24/PES-00389. Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan integrala berrikusteari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan integrala berrikusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du amaituko dela Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan integralaren berrikusketa?

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00390. Galdera, Iruñeko, Tuterako eta Altsasuko ohiko aterpetxeen ordezkotzari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Iruñeko, Tuterako eta Altsasuko ohiko aterpetxeen ordezkotzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaioten:

Iruñeko, Tuterako eta Altsasuko ohiko aterpetxez gain, ba al dago ostatu alternatiborik balizko hotz-boladei aurre egiteko? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zeintzuk izanen lirateke?

Iruñean, 2024ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00391. Galdera, A-15 autobioiako lehenbiziko tartearen proiektua gaurkotzeari buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, A-15 autobioiako lehenbiziko tartearen proiektua gaurkotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz edukiko du gaurkotua 2023an esleitu zen A-15 autobioiaren lehenbiziko tartearen proiektuaren eguneratzea?

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/PES-00392. Galdera, A-15 autobia- ren lehenbiziko tartearen obra lizitatu, esleitu eta bukatzeari buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, A-15 autobia-
ren lehenbiziko tartearen obra lizitatu, esleitu eta bukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer epe eta aurreikuspen darabil A-15 autobia-
ren lehenbiziko tartear
lizitatzeko, esleitzeko eta obra bukatzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/PES-00393. Galdera, A-15 autobia- ren bigarren tartearen proiektua- ren gaurkotzea esleitzeari buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea A-15 autobia-
ren bigarren tartearen proiektua-
ren gaurkotzea esleitzeari
egindako galdera, Yolanda Ibáñez Pérez andreak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz esleituko du A-15 autobia-
ren bigarren tartearen proiektua-
ren eguneratzea?

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/PES-00394. Galdera, A-15 autobia- ren bigarren tartearen obra lizita- tu, esleitu eta bukatzeari buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, A-15 autobia-
ren bigarren tartearen obra lizitatu, esleitu eta buka-
tzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebil-
tzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindu-
takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-
kita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-
ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer epe eta aurreikus-
pen darabil A-15 autobia-
ren bigarren tartea lizita-
tzeko, esleitzeko eta obra bukatzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/PES-00395. Galdera, A-15 autobia- ren lotunerako hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, A-15 autobia-
ren lotunerako hitzarmen bat sinatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebil-
tzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindu-
takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-
kita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-
ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak oraindik uste al du hi-
tzarmen bat sinatu behar dela ministerioarekin Nafarroako tartea gainerakoarekin lotzeko? Izan ere, Espainiako Gobernuak esan du ez dela sina-
tu behar.

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/PES-00396. Galdera, Zibersegurtasunaren Nafarroako Agentzia sortzeko foru-lege proiektuari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Zibersegurtasunaren Nafarroako Agentzia sortzeko foru-lege proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2023ko azaroaren 16an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Geroa Bai talde parlamentarioaren mozio bat onetsi zuen; honako hau, hain zuzen ere: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du –zehazki, Trantsizio Digitaleko eta Barneko departamentuak– lehenbailehen ekin diezaioten Zibersegurtasunaren Nafarroako Agentzia sortzeko foru-lege proiektu bat idazteari".

1. Nafarroako Gobernuak zer urrats egin du harrezkero?

2. Nafarroako Gobernuak noiz uste du aurkeztuko duela foru-lege proiektu horren zirriborrea?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00397. Galdera, erresilientzia autonomikorako funtsari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, erresilientzia autonomikorako funtsari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Joan zen ekainean, Espainiako Gobernuak iragarri zuen lehenbiziko 3.400 milioi euro aktibatuko dituela Erresilientzia Autonomikorako Funtsetik, zeinak 20.000 milioi euro mobilizatuko baititu, autonomia-erkidegoen parte-hartzearekin, Europako funtsekin finantzatzeko aldera proiektu erregionalak.

1. Nafarroak eskatuko al du proiektuak mekanismo horren bidez finantzatzea?

2. Hala baldin bada, horien guztien zerrenda eskatzen dut, zenbatekoa eta eginen duen departamentua adierazita.

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00398. Galdera, adimen artifizialak gure ekonomian duen garapenaren inpaktuari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Adimen Artifizialak gure ekonomian duen garapenaren inpaktuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Gobernua nola ari da egiten prospekzio-lan zorrotza eta jarraitua, adimen artifizialak gure ekonomian, enpleguan eta oro har gizartean izan dezakeen bilakaerari buruz, Nafarroa iraultza teknologiko hori baliatzeko moduan jartzeko beharrezkoak diren neurriak aurreratuta, gure erkidegoko jendearen bizitza inor atzean utzi gabe hobetze aldera?

2. Zer ekintza ari da abian jartzen?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray